


VILLA MARÍA DEL CARMEN
D MAILA

BAENAKO DUKEAREN PASEALEKUA 13



Domingo Ezeiza, 1897

Deskripzioa

Villa Nere Txokoren ondoko etxe honek, arkitekto berak egin zuen urte berean, kokapen berdina du sailean, eta lorategiko plataforma eta eustormarekiko erlazio bera halaber; aipatu murrua etxearen lehen fatxada gisa ageri da, eta halako esangura bat badu eskailleraren abioan, karelaren errematean apaindura ere baduela. Kasu honetan eraikinaren bolumena handixeagoa da, beste hormarte bat baitu erantsita, dorre kapiteldun bat dela horretan buru. Estalkiak ere malda handikoak dira, arbelez akabera emanak udaldiko bizitegien arloko Europa erdialdeko eraginei jarraikiz. Beheko solairua, lehena, bigarrena eta teilatupekoa hartzen ditu profilak. Etxe biak, bere forma eta lerrokaduretan, argi eta garbi lotzen zaizkio elkarri, eta biek mantentzen dute Baenako Dukearen pasealekuan altxatu ziren lehen etxeen izaera. Oinplanoko L erako eskema batetik abiatzen da, horma piko lirain batez errematatuta, bao bakarra duela mailako. Fatxada nagusiak Kontxarantz duenaren kontrako ertzean dorretxo bat altxatzen da, proportzio berekoa solairu guztietan, baina pabiloi estalki nabarmen karratu batez errematatua gailur lerrotik gora.

D mailaren berariazko babes araubidea

- 1- Babesetik kanpo lagatako fatxadako elementu edo alderdiak: ez dago horrelakorik.
- 2- Fatxadako elementu edo alderdi iraunkorrak: apaindurak, estalkia eta zurezko elementuak.
- 3- Esku hartzeko murriztapen partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4- Nahitaezko lehengoratzak: ez dago horrelakorik.